

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 516/2022 Erabakia, abuztuaren 2koa. Onestea jasangarritasun energetikoko ekintzak sustatzeko laguntza lerroa (2021-2022) 2022. urterako gauzatzeko eta justifikatzeko dokumentazioa aurkezteko epea luzatzea, Aguraingo Udalak eta Asparreneko Udalak eskatuta

Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 3ko 157/2021 Erabakiaren bidez, onetsi zen Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 26ko 31/2018 Foru Dekretuak (ondoren Foru Gobernu Kontseiluaren apirilaren 9ko 23/2019 Foru Dekretuaren bidez aldatua) araututako energia jasangarritasuneko ekintzak bultzatzeko laguntza-lerroaren 2020-2021erako deialdia. Azaroaren 23ko 722/2021 Foru Erabakiaren bidez ebatzi zen laguntza horien emakida.

2021-2022rako deialdiaren ebazpenean, ezarri zen 2022. urteko gastuak ordaintzeko agindutako agiriak 2022ko uztailaren 15erako aurkeztu behar zirela, eta 2022ko uztailaren 8a baino lehenago gauzatu behar zirela gastuak.

Aguraingo Udalarari 6.000,00 euroko dirulaguntza eman zitzaion sei udal eraikinetan energia auditoria egiteko, 2022ko urterokoan esleitura. 2022ko ekainaren 22an, udal horrek idazki bat bidali zuen, 2022ko azarora arteko luzapena eskatzeko, egindako ekintzak epe barruan justifikatzeko arazoak alegatuta.

Asparreneko Udalarari 6.000,00 euroko dirulaguntza eman zitzaion udaleko energia auditoriak egiteko, 2022ko urterokoan esleitura. 2022ko ekainaren 23an, udal horrek idazki bat bidali zuen, 2022ko azarora arteko luzapena eskatzeko, egindako ekintzak epe barruan justifikatzeko arazoak alegatuta.

Aurkeztutako eskaerak onartzen dira eta epearen luzapen hauek ezarri:

- 2022ko azaroaren 23a, diruz lagundu daitekeen jarduna gauzatzeko.
- 2022ko azaroaren 30a, diruz lagundu daitekeen jardunaren ordainketa frogatzeko agindutako dokumentazioa aurkezteko.

Horri jarraituz, Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuak hala proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak eztabaidatu ondoren, gaurko saioan hauxe

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onespena ematea 2022ko azaroaren 23ra arte luzatzeari jasangarritasun energetikoa sustatzeko ekintzetarako laguntza lerroa (2020-2021) gauzatzeko epea 2022ko urterorako, Aguraingo eta Asparreneko udalek hala eskatuta.

Bigarrena. Onespena ematea 2022ko azaroaren 30era arte luzatzeari jasangarritasun energetikoa sustatzeko ekintzetarako laguntza lerroa (2020-2021) justifikatzeko agiriak aurkezteko epea 2022ko urtekorako, Aguraingo eta Asparreneko udalek hala eskatuta.

Hirugarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko abuztuaren 2a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua

JOSEAN GALERA CARRILLO

Ingurumen eta Hirigintza zuzendaria

NATIVIDAD LÓPEZ DE MUNAIN ALZOLA